

FUNTSEZKO SOZIETATEAK



1. Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

- Bazkide eta hornitzaile nagusiak, enpresa sortu dugun kideak gara:
 - Saioa: proiektuen zuzendaria, mekanismo guztien sortzailea da, beraz horien diseinuaz eta enpresen zerbitzuaz arduratuko da. Ekoizpenerako beharrezko materiala eta langileak bilatzeaz arduratuko da.
 - Lander: blogaren eta sare sozialen eguneraketaz arduratuko da.
 - Laida: bezeroekin eta beste enpresekin harremana sustatzeaz arduratuko da.
 - Nerea: koordinazioaz arduratuko da, hau da, bakoitzak bere lana egiten duela ziurtatzen du, arazoak konpontzeko ardura du eta taldekideei laguntza eskaintzen die.
- Gainera, beste enpresa batzuekin aliantzak sortuko ditugu, guk ezin dugulako beharrezkoa den guztia egin eta horrela gure negozioa optimizatzea lortuko dugu:
 - Gure produktuak bezeroei helarazteko produktuak banatzen dituen enpresa batekin aliantza bat sortuko genuke.
 - Elektrikari, mekanikari eta iturgin batzuekin beste aliantza bat sortuko genuke mekanismoak instalatzeko ezagutza handia dutelako.

2. Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

- Guretzako aliantzak oso garrantzitsuak dira, gure negozioa optimizatzen lagunduko digutelako. Horrek kostuak murriztuko dizkigu beste enpresa batzuk azpikontratatuaz.
- Gainera, enpresako lau kideak behar-beharrezkoak eta garrantzitsuak gara, guk burutzen ditugun lana ezinbestekoa delako gure enpresa funtzionatzeko (Sinergia).